

RESEÑA

DÍAZ NOCI, Javier.

Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-I 959).

Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1994.

ISBN: 84-87471-65-X

Three years ago, *Eusko Ikaskuntza*, the Society for Basque Studies, published a catalogue, compiled by A. Ruiz de Gauna, of periodical publications. This new book by Javier Diaz Noci takes a further, more detailed look at a very specific aspect of this field, one that no student of Basque affairs past or present can afford to ignore: periodical publications in the Basque language. To my mind, one of the dangers of research in this area is that interpretations ignoring Basque source material may lack a sufficiently broad scientific base.

Diaz Noci has compiled a catalogue providing an exhaustive list of the periodical publications totally or partially in Basque. The term “periodical publications” itself covers a fairly broad spectrum, as it includes almanacs. Basque speakers in the 19th century were not much given to reading in Basque, although literacy levels in Vasconia in 1860 —roughly 50% of the population— were high in comparison to the Spanish average. However, few were interested in intellectual issues, apart from the political élite, who preferred to use Spanish or French, the languages they needed as intermediaries between the Monarchy and the common people.

Some publications were, however, genuinely sought after: religious books, calendars and almanacs or yearbooks, *bertso-paperak* and, in Bilbao, *Gabonetako kantak*, or Christmas songs, which reviewed in verse the social and political highlights of the year.

Javier Diaz Noci, lecturer at the University of the Basque Country, has made an exhaustive study of the origins and development of Basque-language periodical publications, and the present book provides a useful catalogue of such publications as a whole.

Each publication is described in a catalogue card with 23 entries, designed to enable the researcher or general reader to find detailed information quickly; anything from a publication’s foundation to the date on which it closed, the use of Basque, the political ideology on which it was based, its distribution and a great deal of other material. Entry 21 reveals exactly where the publication is archived.

In short, this catalogue is an essential tool for any Basque studies’ researches

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga

LARREA MUXIKA, José María

Euskaldungoa erroitzurik,

Pamiela, Iruña 1994, 182 orr.

Herri orok joera dauka bere erruak kanpokoei aurpegiratzeko, eta euskaldunak ez gara salbuespena izan korronte horretan. Horrela, euskararen galerari buruz hitzegiterakoan, eskola erdaldunari, soldaduskari eta horrelako faktoreei eman diegu izugarrizko garrantzia, barruko kontraesak eta geure hutsegiteak gehiegi aipatu gabe. Txema Larrearen liburu hau, gai hauek aztertu arren, “*pentsakera horren aurka doa*”, euskararen erroitzearen benetako arrazoien hila.

Nekez definitu daitezke hitz gutxitan liburuaren lerro nagusiak, euskaldunok amildegi-runtz egindako (egiten ari garen) bidaiaren azalpenaren irudia ez baldin badugu erabiltzen.

Larrearen lanak bi hitzaurreen ondotik sei kapitulu eta amaiera ditu. Guztien gaia bera izan arren, atal bakoitzean euskal hizkuntzaren alor desberdina aztertzen du. Lehenengoak “Eliza: diglosiaren iturburu” du izenburutzat. Bertan aipatzen da elizaren eragin bikoitza, batetik euskera iraunarazten lagundu zuen, bestetik, ordea, bigarren mailako hizkuntzataz hartu zuen, herritar xumekin komunikatzeko bakarrik erabiltzen bai zuen, letratze prozesua, deskulturatze bidea bihurtuz. Euskal pentsaerak, hau da, metaforen bidez konzeptuak adierazteko ahalmenak ez zuen tokirik izango euskal letretan. Era berean, kontutan hartu behar da, euskal letratze prozesuan emandako hausturak, Larramendik Axularren tradizioarekin apurtuz, Sabino Aranak euskal gramatika eta egitura laburtzean eta, azkenik, euskara batuaren aldeko mugimenduak burututakoa Frankoren garaiko azken urteetan.

Bigarrenean, “Beharraren mintzamoldea”, Euskal Herriak bizi duen diglosia egoera aztertzen da. Nola erdara ezberdinek kontrolatu duten euskeraren goi-mailak. Are gehiago, euskara zokoratu zuten asko, XIX. arte, bederen, elebidunak ziren. Goi-klaseekin hitzegiteko erdara erabiltzen zen, euskera, aldiz, herritar xumeekin komunikatzeko tresna zen, bide batez hauek erdaraz zabalduzako pozoinetik libratuz. Eskolaratze prozesuak, XIX. mendean batez ere, euskal kultura bazterkultura bilakatzeko prozesua areagotu zuen, erdara (frantzesaz zein gaztelania) ezinbesteko bitartekari bilakatu euskaldunen artean ere, baita bere erreferentzia idazteko orduan. Hizkuntzaren funtzio sozialak desagertuz pixkanaka pixkanaka.

Hirugarrenean Larreak “nazioaren adiera berria” lantzen du, XIX. mendetik aurrera. 1808. urtetik aurrera Frantziar Espainian burututako gerrek zerikusi nabarmena eduki bai zuten, Estatu bakoitzeko euskaldunak beraien burua frantses edota espainolizat hartzeko. “Nagusitasunaren asmoak” da laugarren atalaren izenburua. Bertan ez da aipatzen soilik inguruko hizkuntzen goresmena, baita hizkuntzaren aldeko jarrera politiko-sozial-administratiboen garrantzia hizkuntza hoiengatik nagusitasunean. Euskaldunek, are gehiago euskotar edota baskoek, ere izan dute eragina bide horretan, euskeraz idatzi zitekeela onartu edota defendatu arren, praktikan eremu zehaztutara, olerkiak eta antzeko gaietara, mugatuz bere erabilera.

Hain zuzen, bostgarren atalean “Gutiespenaren sorterroa” da hitzpeidea. Eta hemen, euskaldunok leku garrantzitsua izan dugu, hasi euskeraz predikatzeari uko egiten zioten apaizaengandik, Mogelek eta Larramendik salatu zuten, indianoetara helduz, gutiespene horretan sortutako anekdota iragarriak ahanzi gabe, “*eskuara ahanzi, erdaraz ez ikasi*”, “*neska zaharren gaitza da edertu nahi eta ezina*”. Egoera honen ondorio zen seigarren atalean aztertutako “Glotofagiaren hondaraldian”. Modernizazio edota Eraberritzearen ondorioz euskera eta euskaldunen espazioa bazter eremu bilakatu zen: *Hiria ez dena, industria ez dena, administrazio ez dena, euskal herri gehienetan eskola ez dena, soldadutza ez dena, hitz batez aginte ez den hartan*. Ez zen harrizkoa beraz, euskaldun ugari bere hizkuntza guttiestea, erdaraz mintzatzea edota inguruko euskera goraiatzea, besteena beti hobea delako, *euskera ona Markina eta Tolosakoak direla eta abar*. Euskaltzaleek ere ez zuten hartzen euskera, dagoeneko XX. mendearen hasieran, kultur hizkuntzataz, ezta “*hizkuntz izkiratua bezala, non ez zen zabalkunde politikorako edo herri-oldeak elizaratzeko*”. Beraien arteko eskutitzak erdaraz elkarrukatzeko zituztelarik. II. Errepublikaren garaian hasi zen joera aldatzen.

Zaila da lanaren balorazio egitea. Batetik, liburuaren irakurketa bera ere zaila izan daitekeelako, irakurle ezjakina (aitortu behar dut hiztegiaren laguntza izan nuela izenburuaren esanahia ondo ulertzeko, erroizturik = amildurik) eta Larreak erabiltzen duen euskeraren eredu oparoa eta aberatsa batu ezker. Testuak “*euskara batua zentzurik hertsienean aditzen dutenek osatzen duten lobbia*”ak proposatutako jarraibidetik ihes egiten du, “*Euskal Herriko hegoaldean behin eta bitan errepikatu zen zerotik hasteko sindrome laburtzailea*” saihestu nahian. Norberaren manietan sartuz, oharrak azkenean dijoazte eta ez orri bakoitzaren oinean, ira-

kurketa oztopatuz, bibliografia ez da beti era zuzenean aipatzen eta kombenigarria izango zen argitzea liburua 1993ko apirilean egileak aurkeztutako tesia den bere osotasunean edota laburtuta dagoen. Zenbait fenomenoen datatzea zehatzagoa izan beharko luke, adibidez Pizkundeari buruz hitzegiteko orduan eta hainbat baieztapen gehiago matizatu, hala nola, Kubako gerrari buruz hitzegiterakoan badirudi euskaldun guztiak gerraren alde zeudela, deserzioaren fenomenoak, bat aipatze arren, kontrako iritzikoak bazeudel erakusten duelako.

Honek guztiak, ordea, ez dute inondik inora liburuaren balioa kentzen; hasieran aipatutako faktoreek gure artean izan zuten eragina ederki aztertzen duelako, nola geureganatu ditugun azalduz. Aspalditik euskeraren gainberada adierazteko erabili diren faktoreen aurpegi berri eta argigarriak eskeiniz. Eskertzekoa da, bestetik, lantzen dituen iturrien erabilera. Berak izendatzen dituen *"iturri baztertuak"* ez dira izkutuan egon, baizik eta gure historiagile eta ikertzaileen ezjakintasunaren lekuko dira. Euskararik jakin gabe, hain zuzen *"Nola konpreni, bestela euskal hiztunen bizia eta hizkuntzez itzultzea, bere hizkuntzaren galtzea ere, ahozko iturriak ezpondarat utziaz?"*

Ene aburuz, Txema Larrearen lanak duen hutsune nabarmenena (ez dakit ez ote den delibetatu) azken atalean aurkitzen da, jalgipenetan. Aurreko orrialdeetan euskeraren galtze prozesua era dotorean deskribatu ondoren, egileak uko egiten dio argibide orokorra emateko eskubideari. Era honetan, saiakera amaitzean, irakurlea hotz eta deseroso gelditzeko arriskua dago. Ez bai dakigu, hemen azaltzen zaigun prozesua geldiezinetza den ala ez. Eta erantzuna baiezkoa baldin bada, zergatik dagoen euskeraz idatzita. Gure hizkuntzak gizarte funtzioak galdu baldin baditu, zer zentzu dauka oraindik erabiltzeak. Irtenbide erraza zuen gaztelaniaz idaztean, askoren txaloak jasoteaz gain eta ez zen aurrenekoa izango. Izan ere, maiz, aurkitu ditugu idazle euskaldunen lanak erdara ezberdinetan idatzita, zabalkunde gehiago izango dutelaren aitzakiarekin, gaia bera euskara izan arren. Kontrakoa ez denean, liburuan salatzen denez, euskararik ezagutu gabe, maiz ikusi bai da honi buruz mintzatzea. Baina, berriro diot, liburuaren amaierak, edota hobeto, amaiera ezak, gazi-gozo gustua uzten du, azalpen orokor baten faltaren ondorioz.

Mikel Aizpuru

RUBERT DE VENTOS, Xavier:
Nacionalismos. El laberinto de la identidad
Espasa Calpe, Madrid, 1994, 241 págs.

Un fantasma recorre Europa: el europeísmo. O mejor dicho: el nacionalismo europeo-ilustrado. Y Xavier Rubert de Ventós, exeuroparlamentario, decepcionado por las numerosas trabas administrativas que tanto ese mercado (llamado Europa) como esa burocracia (que es el nacionalismo español) le han deparado en su función política, ha decidido, después de haber narrado su experiencia en *El cortesano y el fantasma*, publicar este *Nacionalismos. El laberinto de la identidad*, producto de sus reflexiones sobre la creación de los Estados contemporáneos y sus correspondientes nacionalismos. Rubert de Ventós, catedrático de Estética en la Escuela de Arquitectura de Barcelona y autor de títulos tan significativos para el mundo de la estética como *Teoría de la sensibilidad*, *La estética y sus herejías* o *De la modernidad*, amén de otros textos de meditación política como esa arqueología suya del nacionalismo español *El laberinto de la hispanidad*, ha decidido establecer una arqueología del Estado-Nación actual.